

ANDRA
MAIXAK

2024KO
ABUZTUAREN
11TIK 17RA



ondarru
bizitza

ONDARROAKO JAIAK



ANDRAMAIXAK'2024 • ONDARROA

**Ondarroako Udalaren eta
Lea-Artibai, Mutriku eta
Busturialdeko HITZAren
publikazio berezia**

AZALA

Lara Larrañaga Salegi

ARGAZKIAK

Jesus Amas Milikua •
Lore Bengoetxea Ibazeta •
Itoitz Eizagirre Artetxe •
Mikel Santiso Urkiza •
HITZA • OGA • Plazagañi •
TKE • Ondarroako Udala

TESTUAK

Lore Bengoetxea Ibazeta
(11 barri) • Alkatetza •
Berdintasun Saila-Etxelila •
Kultura eta Jai Batzordeko
arduradunak •
Ondarroako Udala

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Nekane Akarregi Amutxastegi
(11 barri)

PUBLIZITATEA

Maribi Fernandez Zabala
(Hitza)



ondarru

bixi-bixi

LEA-ARTIBAI,
MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEA

HITZA



2024ko ANDRAMAIXAK

Alkatearen agurra

Udaletxea Udi, giro ona (nahi baino gitxia aurten), oporrak... eta jaixak. Hamen datoz andramai-xak. Urte guztin zain

eoten gazen geure jaixak. Hasi gaz herriko leko desberdinetan jaixetako giru usaintzen: eszenatoki eta karpa montajik, Leokadi bajateko txikotak, txosnak, tanborradako entsaxuk, jaxan aurretik dazen ekintzak, azka-nengoko momentuko gorabeherak...

Bihar asko eukitxen dou eitteko andramaixetan, baine zelako ederto pasaten dou. Herrigintzin erakustaldi-xe douz jaixak, eta aurten eurangan nahi neuke ipini azpimarri. Zer litxa-kez herriko jaixak elkarte baik, boron-datezko biharrik baik? Baakixu zemat ekintza eitten dizen herriko elkarte/eragile desberdinetan dabizen boluntaxuak esker? Harro egoteko arrazoi ederra dakau hor, bai hoixe! Eta eurak esker, bada zereine eta bada nun parte hartu. Gu, herrigintzin bide-

lagun, kantik dinon modun, «herrittik sortu dana baino ez eide herrixana», ta guk zoixonez hoixe dakau, herrittik sortutako eta herrixanak dizen gauza asko.

Aurten be bada baktotxak eindle eukiko dozuena jaixetako plana: montajin esko bat bota, tanborradan parte hartu, kalin buelti lagunakin, Plazagainin bazkaldu, suak ikusi mantekauaz, marmitxako leihaketan parte hartu, txosnaik-txosna ibili, Kafekoatzin dantzan ibili erromeixan, kontziertuk ikusi... Erronka bat planteaten dotsuet aurtego andramaxetako, inoix parte hartu ez dozuen ekintza baten parte hartu! Ikusiko dozue, merezi dau! Animaten zaze?

Guk, hori danoi ein ahal ixateko, gogun euki, beste batzuk biharrin egongo dizela. Errespetuaz jokatu. Errespeta biharrin dazenak, errespeta ondo pasaten dazenak eta errespeta deskantsa nahi dabenak be.

Ondarrun ez dou ixelako eraso matxistaik onartzen, eta horretako aurten be martxan eukiko dou eraso matxistan kontrako arreta zerbitzu. Jaxetako espazixuk errespeta, eta ez badakazu horretako asmoik, ez etorri! Ez ixan erasotzaili eta ez ixan konplizi! Jaxak eta kalik emakumionak* be badiz. Aske maitte eta aske bixitxeko Ondarru nahi dou, eta jaixetan be horretxen alde jarraitxuko dou biharrin.

Zaindu herrixe. Zaindu inguru. Zaindu maitte douena! Zaindu Ondarru. Zikinak dagokixen ontzixeta eta ez behiangaina. Garbi jokatu hondakinakin, herrixaz.





Amaitzeko, urtero modun, eskerrik beruena herrixe bixik mantentzen dozen alkarte eta herritar guztioi. Jaxan atzin dan biharra eta urte guztiko biharra ezinbestekuk diz Ondarru bixi-bixi eukitxeko!

Zuen ekimenai laguntzen zuzen in egoten dizen Udal langiliai ein nahiko neutsake aipamena. Denboraz aurretik hasitxe Kulturari eitten daben biharra txik, Udaltzainguk zelan zain tzen gaitun eta edozein gertaeran aurrin lagundu, brigadik ibilitxen daben harutz- honutze azpiegitura- kin, kalin garbiketa egunero... Mundialak zaze! Eskerrik asko

Andramaxak posible eitten dozen danoi beraz.

**Falta douzenak gogun hartute...
Bixi topea andramaxak!
Ondarru bixi-bixi!**

**Urtza
Alkorta
Arrizabalaga**
Ondarroako alkatea





Feminismoaren doinuarekin dantzan, berdintasuna ardatz hartuta

Kultura eta Jai Batzordeko arduradunen agurra

Zinegotzia izaneran hainbat kontu eta arloekin jabetzeko, formazio ikastaroak hartu behar izaten ditugu. Horietako bat feminismoa da, hau da berdintasuna lortzeko Udaletik egin beharrekoekin jabetzea. Gai desberdinak aztertu ziren, herriko jaiak ere bai.

Herri bateko nortasuna bere jaietan ere isladatzen da. Ondarruko jaiak feministak dira? Gure ustez erantzuna argia da: EZ, jendartea matxista den heinean jaiak ere berdin izango baitira. Nahiz eta hainbat uteetan, lehen-dabizi Emakumeen Batzordeak eta gero Emakumeen Berdintasun Kontseiluak, jaietan ekintza parekideak proposatu eta eraso matxisten aurkako puntu moreak edota protokoloak landu.

Horrela dela onartuta, paradoxikoki, gure herriko jaietako hasiera eta amaiera emoten dion pertsonai nagusia, emakumea da, Leokadi.

Jatorrian neska ausartak beldurtzeko (kontrolatzeko) erabiltzen zen ipuineko edo kondairako pertsonaia

zena, Leokadiren jeitsiera ekitaldian beldurtzen ez den emakumea aurkezten zaigu. Ahaldundutako emakumea da. Ez da ipuin zaharrekin beldurtzen dena, ez horixe. Bere umore zirikatzailea erabiliz, herritarroi errieta, animoak eta aldarrikapenak botatzen dizkiugu. Bere garaian emakumea menpean izateko pertsonaia zena emakume askea izango zela erabaki zuten ikus-kizuna asmatu zutenek.

Horrek ez du kentzen herriko jaietan eskaintzen den egitarauari betaurreko moreekin begiratzea komeni ez zaigunik. Eskaintzen diren ekintzak aztertuz, ea nolakoa den emakumeen parte hartzeaz ohartarazteko eta berdintasuna lortzeko bidean ze aldaketa egin beharko diren guztion artean eztabaidatzeko eta gauzatzeko. Hausnarketa hau emakumeekin eta jendarteko beste sektore edo kolekti-

«Herri bateko nortasuna bere jaietan ere isladatzen da. Ondarruko jaiak feministak dira?»





boekin egin beharreko elkarlana dela deritzogu.

Horretarako hona hemen aipatuta ikastaroan gogoetarako bota zizkiguten galderetako batzuk:

- Zeintzuk dira ekintza bakoitzak indartzen dituen genero eredu eta rolak?

- Ekintzak irudikatzen duen gizarte ereduaren arabera zein rol eta paper desberdin betetzen dituzte emakumeek zein gizek? Ze eginkizun zehatz daukate gizon eta emakumeek jendarte eredu horren baitan?

- Zeintzuk dira emakume eta gizek atxikitzen zaizkien rolei loturiko balore eta sinismenak?

- Nori ematen zaio protagonismoa? Protagonismo horrek ze rol eredu indartzen du?

Guztion teيلاتuan dago pilota.

Galdera hauei eta gehiagori erantzuna ematen joateko konpromisoa hartzen dugu, ahalik eta jai parekideenak lortzeko asmoz.

Bestalde ez dugu nahi amaitu hitzurre hau, urtean zehar, bata urtarri-lean eta bestea maiatzean, joan zitzaizkigun pertsona bi aipatu gabe. Kasu honetan gizonak biak. Garai haietan ere gizonak baitziren jaietan protagonista nagusiak. Hamaika aldiz dantzatu zuten herriko jaietan eta hamaika eta bi izango dira beraiekin euskal dantzak ikasitako herritarrak. Aintzinako moldeetako dantza-maisuak biak; Gerardo Garramiola eta Luis Etxaburu "Latxanbre". Zuek herriari emandakoa bizirik iraungo du aurtengo jaietan ere, zuengandik ikasitako dantzarien oinen pausuetan.

Gora Ondarru!
Gora herriko jaixak!!

Ion Iñaki Artetxe
Egaña eta Aritza
Aristondo
Natxiondo

Kultura eta Jai Batzordeko
arduradunak



Jaietan eraso matxistei aurre egiteko



Aurtengo Andramarietan ere, Emakumeen Kontseiluak eta Berdintasun sailak elkarlanean eraso matxisten arretarako zerbitzua jarriko dute martxan.

Zerbitzu honen bidez, herriko jaietan ematen diren edozein intentsitateko eraso matxisten berri izatea da helburua. Alde batetik, **erasoa jasan duenari laguntza, aholkularitza eta akonpainamendua eskainiko zaio**. Aurrez aurreko zerbitzua Etxelilan emango da zuzenean; nahiago duenak telefonoz dei dezake.

Bete ditzagun jaiak denontzako plazerrez eta gozamenaz; egin dezagun Ondarru eraso matxistarik gabeko gune!

Bestetik, **eraso matxisten lekuko direnak ere telefonora deitzera animatu** nahi dituzte antolatzaileek. Izan ere, eraso matxistak ekiditeko bidean, hauek identifikatzeko eta salatzen dagoen zailtasunean eragin nahi da. Arreta zerbitzua, bestek beste, **indarkeria kasuen berri izateko, erregistratzeko eta ikusgarri egiteko zerbitzua** ere bada; ho-



ERASO MATXISTEN ARRETA ZERBITZUA


ANDRA MARI JAIETAN: 20:00-08:00

ERASO BAT JASAN EDO IKUSTEN BADUZU
JO ARRETA ZERBITZURA:
DEITU EDO HURRERATU!



TELEFONOZ
WHATSAPPEZ

688 772 772



AURREZ
AURRE



ETXELILA
(Artibai 3)

rrela, herritarrak indarkeria matxistaz kontzientziatu eta jaien testuinguruan ematen den errealitatea ahalik eta osatuen jasotzeko. **Eraso matxistaren bat jasan edo ikusten baduzu, deitu.**

**ERASO
BAT JASAN EDO
IKUSTEN BADUZU,
JO ARRETA
ZERBITZURA:
ETORRI EDO DEITU
688 772 772**



Elkarte, txosnak eta taberna hauek eraso matxistarik gabeko jaien aldeko konpromiso aktiboa hartu dute:

- Alai • Anaitasuna
- Arrantzale
- Danak Etxea!
- Kresala Kultur Elkart.
- Plazagañi • Txanpa
- Txosna Batzordea



Paul Moya Flores • TRIPI TRAPU BOLEIBOL TALDEKO KIDEA

«Ikasleei esaten diet konturatzeko eredia direla beste batzuentzat»

Neskak dira Tripi Trapu boleibol taldeko kide guztiak, eta horregatik, beste batzuentzako eredu dira Paul Moya taldeko gidariaren esanetan. Taldeak bigarren ikasturtea egin du, azken horretan eguraldiak lagundu ez eta kiroldegitik asko irten gabe.

Ze helbururekin sortuzen Tripi Trapu? Kirolerako aukera berri bat ezarri nahi izan zen herrian, inguruko herrietan bezala. Ni boleibolzailea naizenez, erronka horri eutsi nion. Udalak kiroldegian ezartzeko aukera eman zidan, eta onarpen handia ikusi nuen, batez ere nesken al-

detik, mutilak ere badauden arren. Neska-mutilen artean 25 lagun daude, bi kategoriatan: kadete eta senior.

Aurretik boleibolean ibilitako jendea al da? Oti hasi dira denak, eta gutxi-ka lekua hartzen joan dira. Lagunarteko txapelketak jokatu ditugu, eta datorren ikasturtean txapelketetan jokatzeko hasi nahi dugu, lehiatzen ikasteko.

Andramarietako txapelketa ate joka dago. Zelan planteatuko duzue?

Lehiaketa mistoa izango da, eta adin tarte bitan banatuta egongo da: 17 urtera artekoak eta hortik gorakoak. Sarearen garaiera desberdina da batean eta bestean. Ahalik eta gehien

jokatzea bilatzen dugu. Horrela, guztiak gutxienez bost partidatan arituko dira. Helburua jolastea da, ez horrenbeste lehiatzea.

Zer dauka hondartzan jokatzeak? Batez ere erakusleho funtzioa du. Hasieran neskei lotsa ematen zien kanpoan jende aurrean aritzeak, baina nik esaten nien konturatzeko eredia direla beste batzuentzat. Kalean jokatzeak, batetik, eurak adoretzeko balioko diela, eta, bestetik, ikusle asko kirolera erakartzeko. Eta eragin hori igartzeko da, ze datorren ikasturtera begira jende gehiago batuko zaigu eta talde gehiago egongo dira.

Mezu bat? Herrian aukera ematea kirol berri.



•Andramaixan aurretik...

abuztuak 3, zapatua

- **10:00-15:00.** Itsasaurre Plazan, NEKAZARITZA AZOKA. Ant.: Lea Artibaiko Landagarapen Alkartea eta Ondarroako Udala.
- **11:00.** Frontoian, EMAKUME MASTER CUP.
- **Pilota mistoa. Gazteak:** Naia Zelaia eta Onintza Galdos VS Eider Pérez eta Malen Mena.
- **Pilota mistoa. Elitea:** Etzegarai eta Gaminde VS Garai eta Capellan. Ondarroako Udala.

• **Goiz eta arratsaldez,** Arrigorri hondartzan, HONDARTZAKO BOLEI TXAPELKETA. (2 X 2 modalitate). 18 urte arteko taldeak (2.24m). **10:00 - 14:00** (sailkapenak)/ **17:00etan** (finalak). Izen emateak webgunean eta Instagrametik: @TripiTrapu. 2024ko abuztuaren 6ra arte eman daiteke izena. Tripi Trapu Boleibol Taldearen eskutik. Ondarroako Udala.

Izen-ematea:



- **13:00etan,** GARAZI ETXABURU AULESTIAREN EMANALDIA.
- **14:30ean,** BAZKARIA.
- **17:00etan,** JOLASAK.
- **18:00etatik aurrera** KON-TZERTUAK: EI HAR (18:00), THE RIFF TRUCKERS (20:00) eta DJ ELEPUNTO (22:00). «Bixi» Plataformaren eskutik. Ondarroako Udala.

abuztuak 10, zapatua

- **11:00.** Badian, TRAINERUEN ESTROPADAK **KAE2** LIGA: XL. Ondarroako Bandera - Goimek Sari Nagusia. Ant.: Ondarroa Arraun Elk. Lag.: Ondarroako Udala.

KAE 2:



- **12:00.** Badian, TRAINERUEN ESTROPADAK **ETE** LIGA: XL. Ondarroako Bandera - Ondarroako Udala Sari Nagusia. Ant.: Ondarroa Arraun Elkartea. Lag.: Ondarroako Udala.

ETE:



abuztuak 6, martitzena

- **19:00.** Kofradia Zaharreko 3. pisuan, TANBORRADARAKO IZEN-EMOTEA ETA ENTSAIOAK. Inor danborrik barik gelditu barik derrigorrezkoa da izena emotea. ENTSAIOAK, gaurtik hasi eta hilaren 9ra arte izango dira. Kresala K.E.

abuztuak 9, barikua

• **Goiz eta arratsaldez,** Arrigorri hondartzan, HONDARTZAKO BOLEIBOL TXAPELKETA (2 X 2 modalitate). 18 urtetik gorako taldeak (2.43m sarea) (adin txiki-koek ere izena eman dezakete). **10:00 - 14:00** (sailkapenak)/ **17:00etan** (finalak). 2024ko abuztuaren 6ra arte eman daiteke izena. TripiTrapu Boleibol Taldearen eskutik. Ondarroako Udala.

abuztuak 8, eguna

- **GAUR DA AZKEN EGUNA (aurretik amaitu ez badira)** KUADRILLA EGUNEKO BAZKARIRAKO TXARTELA erosteko. **5 eurotan salgai, Turismo Bulegoan.** Bazkaria Kafeko atzean izango da hilaren 16an, 14:30ean.

• **Goizetik hasita** Kafeatzean, **BIXI JAIALDIA!** (eguraldi txarra eginez gero, Musika plazan)
 • **11:00etan,** TXUPINAZOA.
 • **12:00etan,** GRAFFITI TAILERRA ETA ASISKO URMENETA OTSOA KOMIKILARIA.

- **20:00etatik aurrera.** Itsasaurre Plazan, KONTZERTUA: BIREN, IRAI ETA LATIN VIBES Txilixokaren eskutik. Ondarroako Udala.

3 0 urtetik gora daramatza Xemeinek Ondarroako plazan. Badira andramari batzuk. Hortaz, badaki parranda aztarnak bilatuko dituela plazan, eta normalean baino lagun gutxixeago ibiliko dela, baina erreserbarako erosgaien bila ere joango da jendea.

Ondarrutarreratik dio beti erantzuten dutela.

Ze bilakaera ikusi duzu plazan? Bizkai osoan horrelako plaza gutxi egon dira, eta orain gain-behera itzelean doa, ze jendea erretiraturuz doa eta ez dago lekuko aldaketarik. Azpiegituraren egoerak ere ez du laguntzen, besteak beste Costa departamenduaren mugak direla eta. Berritu behar dela eta berritu behar dela esaten duten arren, ez da inoiz berrizten. Eta bitartean, merkata hiltzen-hiltzen.

Zelako harremana daukazu herritarrekin? Beti esaten dut nik Ondarroan jendeak oso ondo balortzen duela jeneroa, eta nik maila berean balortzen dut Ondarroako jendea, ze esfortzu handia egiten du hona etortzeko. Ondarrutarrek beti erantzuten dute: uda partean martxa handia egoten da.

Eta andramarietan?

«Txipa» aldatuta dago, eta lehen ez bezala, jaietan gero eta ohitura handiagoa dago kanpoan



Alejandro Arrieta Malaxetxebarria Xemein

• BASERRITARRA (Markina-Xemein)

«Jaietan jendeak beti eramaten ditu ortuariak erreserbarako»

bazkaltzeko. Hori bai: dela tomatea, dela piperra, dela letxuga, jendeak beti eramaten ditu ortuariak erreserbarako.

Bezeroen umorean igaritzen da herria jaietan dagoela? Biharamun asko egoten da! (kar, kar, kar) Nahiz eta gazte gutxiago etorri, ondo saltzen da, ez gara kexatuko.

Errespetuz jokatzeko da lekuarekin? Batzuetan

plaza penagarri egoten da. Egunaren arabera, txarrikortatuta hutsa. Brigadakoek errepaso handia ematen diote eta itxuratu egiten dute.

Mezurik bai jaietara begira? Ondo pasatzeko, jakina! Eta gure lehen sektoreari dagokionez, zera: ikusten dugula beherantz doala, baina burugogorrek garela. Guk eutsiko diogu, eta bezeroei ere eusteko deia egiten diegu.



Lara Larrañaga Salegi •

2024ko ANDRAMARIETAKO KARTELAREN EGILEA

«Hausnarketa eragin nahi nuen historiaren, berdintasunaren eta askatasunaren inguruan»

Zelan heldu zara emaitza horretara? Emakumea irudi zentrala izatea nahi nuen, eta horretarako zein hobeto Leokadi baino, baina neuri burura datorkidan moduan. Gaur egungo neska bat ilustratu nahi nuen. Izan ere, Leokadi emakume

indartsua den arren, galdera bat planteatzen zait: gaur egun zelan ikusten dugu jaietako emakume zentrala urte guztian kateatuta egotea. Ez nuen nahi ilustrazio soil bat egin: hausnarketa eragin nahi nuen historiaren, emakumearen,

berdintasunaren eta askatasunaren inguruan. Ez da sortzen zaidan galdera bakarra. Neure buruari beti galdetu izan diot zein den Leokadi, kondaira nondik datorren, zer pentsatuko ote zuen... Hortik, lanaren izenburua: «*Leokadiren ametsak*».

Eta buruz behera ipini duzu... Batetik, Korretatik datorrelako, eta bestetik, marrazteko jokoa ematen didalako. Eta han agertzen da Alde Zaharra, dena pasatzen den lekua. Eta balea, historikoki erakutsi diguten eran barik, beste era batera, libre eta pozik. Hortik aurrera, elementuak gehituz eta gehituz joan naiz, bateko jendea, beste-ko txoriak,... Askatasuna erakusten duten elementuak.

Zelan izan da prozesua? Zirriborroa eskuz egin nuen, eta gero digitalera pasatu. Behin puntu horretan, testurekin eta argiekin jokatu dut. Marrazketari buelta asko eman dizkiot, eta ordu batzuk eman ditut: ondo begiratuz gero konturatuko gara ez daukala lerro bat bera ere. Dena da zuria eta gerizpeekin marraztuta. Eta horrek behin eta berriro marraztea eskatzen du.

Lan horrek emaitza eduki du, 22 lanen artean jai batzordeak zeurea saritu du eta. Bai, eta emozionatuta nago nire lana aukeratu dutelako.

ONDARRUN, *Bifurrak guaz jai!*

ERASO MATXISTARIK GABEKO GUNEA

Indarkeria matxistaren aurrean zure jarrera aktiboa adierazteko eta autodefentsa feministaren aholkularitza.


Abuztuak 13,
MUSIKA PLAZAN
Abuztuak 16,
ALDE
ZAHARREAN
(19:00etatik
22:00etara)

Eraso sexistan kontra bazaz, jaixetan be adierazixun! Zapi lila jantzi te ABUZTUN 11ko **ELKARRETARATZIN PARTE HARTUXUN!**

Abuztuak 11, domeka,
ALAMEDAN, 19:00etan
Andrabanda Feministarekin.

**GORA
LIGOTEO
SANU!**

**BAIETZA EZ TAN
BITXARTIN,
EZETZA RA**



Gora aniztasun sexuala!!!

ETA AKORDA:

- Erropak ez diz berez-berez garbitzen.
- Jateku mahaigaña beran bostin ezta allaten.
- Ardurak eta zaintza biharrak banatu ezkeo, jaixetan danok gozatzeko aukeri eukikou.

**ARDURAK BANATU EZKEO,
JAIXAK DANOK GOZATU!**



abuztuak 11, domeka

Santa Klara Eguna

JUBILATUEN EGUNA



- **19:00.** Alamedan,
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO JAIEN ALDEKO
ELKARRETARATZEA ANDRABANDA FEMINISTAREKIN.
Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseilua.



- **19:30.** Antiguako Ama egoitzan,
LUNTXA EGOITZAKO JUBILATUENTZAT.
Ondarroako Udala.

- **Ondoren,** Antiguako Ama egoitzan,
DANTZALDIA JUBILATUENTZAT:
GAUARGI taldearekin. Ondarroako Udala.



SANTA KLARA EGUNEKO EKITALDIAK

- **22:30.** KONTZERTUA:
HIL (Ondarroa) ETA UGER (Bilbo).
- **Ondoren,** DJ-ak:
DJ SARGORI ETA DJ MUTIL ASPERTUA.
Santa Klara jai batzordearen eskutik. Ondarroako Udala.



SEGURTASUN NEURRIAK

OHARRAK>>>

SU ARTIFIZIALAK

- Errespeta ezazu segurtasun eremuko zona mugatua.
- Ez oztopatu Larrialdi zerbitzuetako ibilgailuen bidea.
- Jarraitu Udaltzainen mezuei.
- Gaizki sentituz gero, (mareoak, etabar), Kalatraba zubiaren parean egongo diren sorospen postura joan.
- Ikuskizunean zehar, begietan errautsa sartuz gero, urarekin garbitu baina ez begirik igurtzi.
- Ahal den neurrian, ez ekarri txakurrik ikuskizunera, oso entzumen sentikorra dute-eta.
- Suak amaitutakoan, ez ikutu su artifiziaren karkasarik. Horrelakorik ikusiz gero, deitu udaltzainei berehala.

ZEZENSUZKOA

- Ikuskizunean parte hartzeraz bazoaz, arropa egokiekin babestuta hurreratu zezenarengana. Ez bazoaz parte hartzeraz, ibilbidetik urrundu mesedez.
- Ume txikiei ez laga hurreraten.



Gurasoen BAIMENA

ADIN TXIKIKOEN GURASOENTZAKO OHAR GARRANTZITSUA

Zure semeak edo alabak KUKAÑAN edo/eta ZEZENSUZKOAN parte hartu nahi badu, baimena sinatu behar duzu. Hala ez baduzu egiten, zure semeak edo alabak ezin izango du parte hartu. Baimen bakarrarekin nahikoa izango da bietan parte hartzeko. Hona hemen ereduak:

Nik _____
 _____ (izena eta bi abizen)
 _____ EHNA/NAN zenbakia
 dudan honek, nire semea/ alaba den
 _____ (r)i
 aurtengo Andramari jaietan ospatuko diren ekintzetan parte hartzeko baimena ematen diot.

Eta hala egiaztatzeko sinatzen dut,

Ondarroan, 2024ko abuztuaren ____ (e)an,


Sinadura:

_____ (bete datuak, ebaki eta eroan antolatzaileei)

abuztuak 12, astelehena

Txintxirrika Eguna

- **17:00.** Latxanbre Plazan
(eguraldi txarrarekin Itsasaurre plazan),
HAUR IKUSKIZUNA: «*AURKITU GABEKO ALT XORRA*»,
Zirika Zirkus-en eskutik. Ondarroako Udala.
- **18:00.** Latxanbre Plazan
(eguraldi txarrarekin Itsasaurre plazan),
BURUHANDIEKIN JOLASEAN, Artelanen eskutik.
Ondarroako Udala.
- **18:30.** Latxanbre Plazan
(eguraldi txarrarekin Itsasaurre plazan),
TXOKOLATADA UMEENTZAT, Artelanen eskutik.
Ondarroako Udala.
- **19:30.** Zubi Zaharraren aurrean,
UMEENTZAT KUKAÑA. Ondarroako Udala.
- **Arratsaldean zehar.** Udal frontoian,
ONDARROAKO PALA TXAPELKETAREN FINALAK
Jolas-Bizi Kirol klubaren eskutik. Ondarroako Udala.





Itxaso Urkiaga Etxebarria eta Kevinth Cardona Patiño ·

KUKAÑAZALEAK

«Erakutsi nahi dugu hemen zaletasun handia daukagula»

Itxaso Urkiaga eta Kevinth Cardona umetatik ibili dira kukañan, bai jolasean, bai andramarietako txapelketetan. Urkiagak andramarietako ikurrin bi dauzka umeen kategorian, eta bat nagusienean, eta Cardonak bat umeenean eta lau nagusienean. Arrantzale Egunean beste hitzordu bat daukate. **Aurten kukañazaleak taldea sortu duzue Aurreraren izenean. Zergatik?**

Kevinth Cardona:
Ondarroako taldetik beste

lehiaketetara ordezkarri bat joateko helburuarekin. Erakusteko guk hemen zaletasun handia daukagula, eta beste herriak ere animatu daitezten taldeak sortzera. Ondo egongo litzateke denon artean ligaxka bat sortzea.

Itxaso Urkiaga: Urte batzuetan kukañako parte-hartzea jaitsita egon da, eta sakada baten beharrean zegoen.

Momentuz, zu, Kevinth, Euskal Herritik kanpoko txapelketetan parte hartzen ari zara, Euskal Herriko I. Kukaña

Txapelketa Ondarroan bertan irabazi eta gero...

K.C: Udan Turkian eta Azerbaijanen egon naiz [azken horretan hirugarren egin du]. Ahal dela, udarou-udaro mugitu egingo naiz era horretako txapelketetara. Berez, ideia ere bada Euskal Herriko kukañetatik tour bat egin eta jendeari erakustea kukaña mundu hau zein bitxia den.

Ze berezitasun dauka Ondarroako kukañak beste batzuekin alderatuta?

K.C: Herriaren babes. Animo horiek. Eta kukañaren beraren ezaugarri dagokienez, luzeagoa dela; makurdura handia daukela. **Zein mezu bidaltzen duzue andramarietako kukaña txapelketari begira?**

I.U: Jendeari parte hartzera animatzeko, batez ere neskei. Ahalegindu daitezela. Ulertzekoa da egun horretan ikuskizunak parte hartzaileengan eragiten duen zirrara: jendea begira daukazu, kukaña koipeztuta,... Ez bazara asko ibili eta segurtasunik gabe bazoaz, beldurra ematen du. Hala ere, beldurra albo batera utzi eta parte hartzera animatzen ditut. Ez da derrigorrezkoa ez aringa-aringa joatea ez irabaztea, ondo pasatzea baino.

K.C: Horrez gain, ikusleak bertora etortzera animatzen ditut. Oso gauza polita da ikusteko.

abuztuak 13, martitzena

Gaste Eguna

- **11:30.** Gaztetxean,
KAMISETA SALMENTA. OGA.
- **12:00.** Kortxeletik Gaztetxera,
TURUBIREN JAITSIERA.
Ondoren, TXARANGA. OGA.
- **14:30.** Plaza Ganean,
GAZTE BAZKARIA. OGA.
- **16:30.** Herrian zehar,
GAZTE JOKOAK. OGA.
- **17:00 – 18:30.** Tiobiboetan,
JAI INKLUSIBOAK LORTZEKO,
TIOBIBOETAN EZ DA MUSIKARIK
EGONGO, ZARATAREKIN
HIPERSENTSIBILITATEA DUTENEK ERE
GOZATZEKO.
- **19:00.** Kafatezian,
GAUR TXOSNA ZABALIK! Danak etxeal!
- **19:00.** Musika Plazan,
TXOSNA IREKIERA.
Musika Plazako txosnak
- **19:00-22:00.** Musika Plazan,
KONTZERTUA: ATRIKIPUNK.
Musika Plazako txosnak
- **19:00-22:00.** Musika Plazan,
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO
GUNEA. Ondarroako Emakumeen
Udal Berdintasun Kontseilua.
- **22:00.** Ibaiondotik hasita eta kalerik
kale, TANBORRADA Kresala Kultur
Elkartearen eskutik. Ondarroako Udala.
- **00:00.** Musika Plazan,
KONTZERTUAK: SHIBARI eta
BALLOM FRAME. Ondarroako Udala.





Gora portuko andrak!

ondarru

For the future

Milaka arrain kaxa pasa dira euren eskuetatik. Batez ere, loari ostutako orduetan, gau zaittuetan.

Ondarroako «deskargetako andrak» dira, azken hamar kaxa bietan «Ondarroako Neskatalien Elkartea» izenaren pean aritzen diren langileak (ONE). Kaian sartzen den

arraina zamatu, sailkatu eta txukun prestatzeko arduratu denak. Ezinbesteko katebegia barreratik barrurako erritmo frenetikoan.

Eurak omenduko dituzte udalak andramarietan, egindako lana aitortu eta bistaratu nahirik. ONEk pozik hartu du izendapena, herriaren begirunearen seinale delako.

Ospatzeko, deialdia egin eta eurtako asko batu ditu familia argakia ateratzeko (denak ezin!), lehenengoak eta oraingoak, guztiak baitira belaualdiz belaualdi aurrera eramandako lanaren protagonistak.

Urteen poderioz, eta gogor borrokatuaz, eskubideak lortzen joan dira (ez denak). Aldiz, gaur egungo

lanak ez die soldatarik bermatzen, eta diote beste lan batzuekin osatu behar izaten dutela.

Andramariez apenas gozatzerik eduki izan dute («Makina bat bider ikusi ditugu suak bodegatik!>). Baina aurten bai, aurten egutegia aldeko izan dute, eta goitik ospatzeko moduan izango dira.

abuztuak 14, eguaztena

Amnistia Eguna



• **10:30.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **11:00-15:00.** Musika Plazan,
MAMARRAZOKI Artisau Azoka.
Musika Plazako txosnak.

• **11:30-13:30.** Kalerik kale,
BIZKAIKO ALBOKARIAK.
Ondarroako Udala.

• **13:00.** Alde Zaharretik Alamedara,
MANIFESTAZIOA «ASKATASUNA!»
lemapean. Ondarroako SORTU.

Amaieran, Kafeko atzean,
ELKARTASUN BRINDISE.

• **14:30.** Plaza Ganean,
ELKARTASUN BAZKARIA. Txartelak
Anaitasuna eta Alai tabernetan.

• **17:00 – 18:30.** Tiobiboetan,
JAI INKLUSIBOAK LORTZEKO,
TIOBIBOETAN EZ DA MUSIKARIK
EGONGO, ZARATAREKIN
HIPERSENTSIBILITATEA DUTENEK ERE
GOZATZEKO.



• **18:00.**
Zaldupe Futbol Zelaian,
FUTBOL PARTIDUA.
XLVI. ANDRA MARI SARIA:
Aurrera K.E. – Mutriku F.T.

• **18:30.** Musika plazan,
MEXENDI. Musika Plazako txosnak



• **18:45.**
Antiguako santutegian,
SALBEA.

• **19:00.** Itsasurren,
BERTSO SAIOA: ONINTZA ENBEITA,
MAIALEN LUJANBIO, IKER ZUBELDIA
ETA AITOR BIZKARRA bertsolariekin.
Gai Jartzailea: IÑAKI LERSUNDI
ARRIZABALAGA. Ondarroako Udala.

• **19:00-23:00.** Kafeatzean,
ERROMERIA: LUHARTZ. Danak Etxea!

• **19:45.** Musika Plazan,
«BESTE TXOU BAT» herriko artistan
eskutik. Ondarroako Udala.

• **20:30.** Zaldupeko Zubiko paretik eta
kalerik kale, ZIRKU KALEJIRA
ZIRKOZAUURRE taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **23:20.** Kofradia Zaharraren aurretik,
KRESALAKO BANDAREKIN kalejira
Musika Plazara. Ondarroako Udala.

• **00:00.** Musika Plazan,
KORTXELEKO MAMUEN JAITSIERA eta
IKURRINAREN IGOERA. Eta OMENDUEI
GORAZARREA: **Gora portuko ANDRAK!**
Ondoren, KORTXELEKO MAMUEN
KALEJIRA Kresalako Bandarekin.
Ondarroako Udala.

• **00:30-2:30.** Kafeatzean,
ERROMERIA: LUHARTZ. Danak Etxea!

• **1:00.** Musika Plazan,
KONTZERTUA: LA FULANA.
Musika Plazako txosnak.

• **03:00.** Beikozinatik Musika Plazara,
PANTALOI ETA KANTZONTZILLO
KARRERA. **Ondoren,** Musika Plazan,
DJ JUSEFF. Musika Plazako txosnak.



Mamarrazoka, sortzaileen topaleku

Hirugarren urtez jarraian, Onoren txosna batzordeak Mamarrazoka antolatuko du andramarietarako, hasierako helburu berarekin: eskualdeko eta inguruetako sortzaile txikiei euren lana plazaratzeko lekua eskaintzea.

«Beharrezkoa ikusten genuen Ondarroan leku hori ematea, txosna gunean, hau da, gazte ingurune batean, gazte sortzaile asko garelako. Beste azoka batzuetan arazoak eduki ohi ditugu, baldintza asko eskatzen direlako; hemen ez», adierazi du Irati Bidegain Lekue sortzaileak. Eta deialdiak hasieratik eduki du erantzun ona, bai sortzaileen aldetik, bai ikusleen aldetik.

Andramari Egunaren bezperan izango da

hitzordua, abuztuaren 14an. «Gunean eguna has-teko era oso ona da. Arratsaldeko ikuskizun eta meriendarekin, egun horretako egitaraua osatu-ta geratzen da», esan du Garazi Burgoa Aldarondok. Era guztieta-ko sormen lanak jarri ohi dira musika plazan, beste-ak beste, material desber-dinetako bitxiak, margoak, arropak eta motxilak. Aurrean, horiek edo beste batzuk egongo dira balsegai. Zerrenda zehatza aurrera-go jakingo da, izena emate-ko epea abuztuaren 9an amaituko da eta. Gutxi gorabehera 25 erakusle egongo dira, baina 30 iza-tera ere irits daitezke: bakoitzak zenbat mahai behar dituen, horren araba-bera.

Ondarrutarrentzat urteko bigarren hitzordua da, Gabonetan Ondarroa-

ko sortzaileen azoka aton-du ohi delako. Diotenez, leku horiek lanean jarrai-tzeko bulkada ematen diete sortzaileei, topaleku diren heinean. «Beste sor-tzaile batzuekin espazioa konpartitzeak aparteko balioa dauka, saretu egi-ten garelako eta beste eki-men batzuk sortu ahal ditugulako», gehitu du Bidegainek.

Artisanen objektuen atzean ordu askotako lana dago. Batzuek lortu dute merezi duen prezioa ipin-tzea euren lanari. «Normalean sortzaileen lanari ez zaio baliorik ematen. Dena dela, gaur egun hori aldatuz doa», dio. Nolanahi ere, azokaren arrakasta ez da lotu behar derrigor salmentarekin, hala uste dute. «Jendeak balioa ematea norbere beharrari, hori ere gauza handia da».

abuztuak 15, eguena

Andria Mari Eguena

• **10:00.** Antiguako santutegian,
MEZA NAGUSIA.

• **10:30.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **12:00-14:30.** Itsasaurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
(Eguraldi txarra eginez gero,
Zaldupeko eskolako patioan).
Ondarroako Udala.

• **12:45.** Itsasaurre Plazan,
HERRIARI AURRESKUA.
Ondarroako Udala.

• **13:00.** Itsasaurre Plazan,
MUTRIKUKO MUSIKA BANDAREN
KONTZERTUA. Ondarroako Udala.

• **17:30.** Frontoian,
ESKU PILOTA PARTIDAK. Markina-
Xemeingo Esku Pilota Taldearen
eskutik: Benjaminak, alebinak,
infantilak, kadeteak,
jubenilak,
EMAKUMEZKOAK
ELITEA ETA
GIZONEZKOAK.
Ondarroako Udala.

Informazio gehiago:



• **17:30-20:00.** Itsasaurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
(Eguraldi txarra eginez gero,
Zaldupeko eskolako patioan).
Ondarroako Udala.

• **19:00.** Kalez kale,
KALE ANIMAZIOA:
Artelanen erraldoiak
eta buruhandiak
Dunbots
txarangarekin.
Ondarroako Udala.



• **19:00-23:00.** Kafeatzean,
ERROMERIA: SUKAR.
Ondarroako Udala.

• **22:30.**
Arrigorri hondartzan,
SU ARTIFIZIALAK
Pirotecnia VALECEAren
eskutik.
Ondarroako Udala.

Segurtasun neurriak



• **23:00.** Itsasaurre
Plazan, DANTZA
EMANALDIA:
DANTZARTE ETA
GURE AMETSA
DANTZA TALDEA.
Ondarroako Udala.





Gaia? ARO HISTORIKOAK

Gaur egungoa ulertzea ezinezkoa litzateke nondik gatozen jakin barik. Zer gertatu zen? Zeintzuk izan ziren? Nolakoa zen? Zer gertatu zen?

Aro historiko bakoitzak badauka bere berezitasuna: gizartea, lana, antolamendua, bizimodua, gertaerak, sinbolismoa, ezaugarriak... Aurtengo Kudrilla Egunerako proposatu dugun gaiak horiek guztiak barnebiltzea du helburu.

Herritarroi gai zabal bat eman eta ahalik eta jende gehien aro historiko bati dagokion arropak

jantzita kalera ateratzea nahi dugu. Aro, talde, gertaera edo horrelakoren baten errepresentazioa izatea: Historiaurrea, antzinarioa, erdi aroa, aro modernoa, aro garaikidea... Neandertalak, Egipto, Mesopotamia, Erromatarrak, Bisigodoak, Baskoiak... Idazkera asmatu, Simon Bolivar, Munduari bira, inprenta, Frantziar iraultza, Virginia Woolf, Dolores Ibarruri, gizakia ilargian... Amairuko guda, Nafarroako Erresuma, Sorioneku, sorgin ehiza...

Aurten ere, azken urteetan moduan, herritarrei zabaldu zaie proposamenak egiteko aukera eta

12 proposamen jaso ditu kultur sailak, batzuk errepikatuak gainera. Aro historiko edo etapa jakin batzuen proposamenak ere jaso ziren (1920ko hamarkada edota 2000 urteak esaterako), baina aukera gehiago emateko asmoarekin eta ahalik eta jende gehien animatzeko nahiaz, aro historikoak aukeratu zen gaitzat, gehiago zehaztu edo mugatu gabe.

Proposamen guztiak ezagututa, jaiak antolatzeko elkartzen diren herriko talde eta eragileen eta udaleko kultur sailaren artean aukeratu zuten gaia zein izango zen.

abuztuak 16, barikua

Kuadrilla Eguna



• **9:30.** Musika plazan,
MARMITAKO LEHIAKETA.
Musika plazako Txosnak.



• **10:00.** Alamedan,
MARMITAKO LEHIAKETA
(eguraldi txarra eginez
gero, Itsasurren)
Arranondo Kultura Elkartearen
eskutik. Ondarroako Udala.

• **10:30.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **12:00-14:30.** Itsasurren,
UMEENTZAKO PARKEA (eguraldi txarra eginez gero, Zaldupeko eskolako patioan). Ondarroako Udala.

• **13:30.** Zaldupeko Zubitik hasita eta kalerik kale, KALEJIRA SAKATU TXARANGAekin. Ondarroako Udala.

• **14:30.** Kafeatzean,
KUADRILLEN BAZKARIA (txartelak 5 eurotan, Turismo Bulegoan abuztuaren 8ra arte). Ondarroako Udala.

• **15:00.** Musika Plazan,
BERTSO BAZKARIA.
Musika Plazako txosnak.

• **17:30-20:00.** Itsasurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
(Eguraldi txarra eginez gero, Zaldupeko eskolako patioan).
Ondarroako Udala.



• **18:00.** Frontoian,
HERRI KIROLAK Mutriku
Sokatira Taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.



• **18:30-22:30.** Kafeatzean,
ERROMERIA: ITZAL.
Danak etxea!



• **19:00-22:00.** Alde Zaharrea,
INDARKERIA MATXISTARIK
GABEKO GUNEA.
Ondarroako Emakumeen Udala
Berdintasun Kontseilua.



• **19:30.** Alde Zaharrea,
KALE DISKOTEKA:
ELEPUNTO DJ.
Ondarroako Udala.



• **23:00.** Itsasurre Plazan,
KONTZERTUA: DUPLA ETA
RAIMUNDO EL CANASTERO.
Ondarroako Udala.



• **02:00.** Musika Plazan,
PLAY-BACKa.
Musika Plazako txosnak.



• **03:00.** Musika Plazan,
LUMATZAK.
Musika Plazako txosnak.





Dantzan, dantzan, domeketako plazan

Domeketako dantzaixak. Hala izendatzen dute euren burua, domeketan batu ohi direlako euskal dantzak dantzatzeko; umetan ikasi zuten horixe bera. Horretxek hurbildu ditu elkarrengana, zaletasun bera edukitzeak.

Txomin Agirre dantza taldeko dantzari ohi batzuk adoretu eta dantzan egiteko elkartzan hasi ziren astean behin Guzur Etxean, udalak utzitako lokalean. Harrezkerro, Kresalan ibilitako beste batzuk batzen joan zaizkie.

Gaur egun hamabi laguneko talde egonkorra osatzen dute, gizonezko bi eta hamar andrazko. Ñabardurak ñabardura, denek daukate oinarri bera, oinarri on bat, denak baitira garai dantzazale baten oinorde: euskal dantzak herrian indartsu zeuden aro bat, herrian hiru talde zeudena: Kresala, Txanpa eta Txomin Agirre. Handik edan

zuten dantzari beteranoek, karismadun maisuen gidaritzapean. Aurten, gainera, eurretako bi zendu dira: Gerardo Garramiola eta Luis Etxaburu *Latxanbre*, arrastoa utzi duten maisu bi.

Talde haietako dantzari batzuk baino ez dira **Domeketako dantzaixak**, eta atak zabalik dauzkate dantzarako oinarria daukaten guztientzat.

Pena ematen die herrian euskal dantzek lehen zeukaten indarra galduta edukitzea («eta mutil gehiago ez egotea ere bai»). Nolanahi ere, eurek behintzat dantzan egiteari eusten diote, eta batzuek ez dute aukerarik galtzen egokiera guztietan dantzan egiteko, andramarietan bertan, adibidez; dela erromerietan, dela Atako Bantzan.



abuztuak 17, zapatua

Arrantzale Eguna



• **10:30.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udala.



• **12:00.** Kalez kale,
KALE ANIMAZIOA Artelanen
eskutik, Hala Gera Dultzaineroek
lagunduta. Ondarroako Udala.



• **12:30.** Zubi Zaharretik dindilizka,
OIHAL ETA TRAPEZIO IKUSKIZUNA,
Artaka Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.



• **Ondoren.** Zubi Zaharraren
aurrean, KUKAÑA.
Saria: 300€ irabazlearentzat.
Ondarroako Udala.



• **13:00.** Kalez kale,
ATAKO BANDAN DANTZA SAIOAK
Kresala Kultur Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.



• **17:30.** Kofradia Zaharraren
aurrean eta Itsasaurren,
BENTAZAHARREKO
NESKA-MUTIKO ALAIAK.
Ondarroako Udala.



• **19:00.** Musika Plazan,
KONTZERTUA: OLATZ ETA AISSA.

Ondoren. KONTZERTUA:
MUGI PANDEROA. Musika Plazako
Txosnak.



• **19:30.** Kafeatzen,
EUSKAL ERROMERIA Kresala Kultur
Elkartearen eskutik. **Ondoren.**



DJ KOLen saioa: EUSKAL MUSIKA.
Ondarroako Udala.



• **23:20.** Zubi Zaharretik eta kalez kale,
KORTXELEKO MAMUEN KALEJIRA
Kresala Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **23:45.** Musika Plazan,
KORTXELEKO MAMUEN IGOERA
Kresala Kultur Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **Ondoren,**
Musika Plazatik irtenda,
ZEZENSUZKOA.
Ondarroako Udala.



Segurtasun neurriak

• **00:30.** DJ KOLen saioa: JAIEN
AMAIERA: 80-90. HAMARKADAKO
MUSIKA. Ondarroako Udala.

• **00:30.** Itsasaurre Plazan,
KONTZERTUA GOXUA 'N SALSAREKIN.
Ondarroako Udala.

• **00:30.** Musika Plazan, ADUR.
Ondoren. GORKA UGARTE, SARGORI
ETA MUTIL ASPERTUA DJak.
Musika Plazako Txosnak.



Ondarroako Udalak, Andra Mari jaietara bideratutako dirua zertan gastatzen duen ikus dezakezu hurrengo taulan. Herritarron dirua zertara eta ze kopurutan bideratzen dugun erakustea da gure asmoa, transparentziz jokatzeara.



2024ko Andra Mari jaietako AURREKONTUA

KONTZEPTUA	TOTALA
• Azpiegiturak (eskenatokiak, karpak, argindarra, komunak...)	40.227,92
• Aseguruak, baimenak, tasak, segurtasuna, anbulantziak...	14.320,00
• Udalak antolatutako ekintzak	41.800,60
• Udalak haurrentzat antolatutako ekintzak	8.073,00
• Udalak eta Herriko taldeek antolatutako ekintzak	22.329,97
• Udalak Txosnaguneetan antolatutako ekintzak	8.897,00
• Kartel Lehiaketa	600,00
• Su Artifizialak eta Zezen Suzkoa	9.250,56
• Batzuk	1.152,00
Denetara	146.651,05 €

·Andramaixan atzetik...

abuztuak 23, barikua

• **17:00 – 22:00. Musika Plazan,** DANTZ POINT ONDARROA by BBK. Artistak: Garai, Celeraka eta Koldo Loira. Ant.: Dantz. Lag.: BBK eta Ondarroako Udala.



info+:



abuztuak 29, eguen

• **19:45etik aurrera.** Arrigorri hondartzan, UMEEN ATLETISMO PROBAK. Ondoren, ATLETISMO ERAKUSTALDIA. Ondarruko Atletismo taldearen eskutik. Ondarroako Udala.

irailak 21, zapata

• **Egun guztian.** IX. TXISTU EGUNA. Ondarroako Txistulari Elkarte. Ondarroako Udala.

• **17:00. Itsasaurre zubitik,** ONDARRU-LEKITTO VIII. KOSTALDEKO LASTERKETA. Izen ematea eta araudia: herrikrosa.eus. Autobusa egongo da Lekeitiotik Ondarroara. Zalantzak eta galderak: kirola@tximista.net. **info+:** tximista.net. Ant.: Tximista AT. Lagunt.: Ondarroako Udala.

abuztuak 24, zapata

• **18:00. Badian,** TRAINERUEN ESTROPADAK EUSKO LABEL LIGA: XL. ONDARROAKO BANDERA - CIKAUTXO SARI NAGUSIA. Ant.: Ondarroa Arraun Elkarte. Lag.: Ondarroako Udala.



TKE:

abuztuak 31, zapata

• **16:00.** Arrigorri hondartzan, IGERIKETA MASTERCLASSa - Igeribideak. Ant.: Bizkaiko Foru Aldundia. Lag.: Ondarroako Udala.

irailak 28, zapata

• **14:00.** Musika Plazatik urtenda, **UMEEN ARRANTZA LEHIAKETA (4 urtetik 14ra)** Zubi Barritik Barrapuntaraino. **Izen-emotea:** aurretik ikastetxeetan eta bertan egunean plazan. **Baldintzak:** Amuagaz arrantzatu behar da, lazuna ez dute balio, eta arrainak 10 zentimetrotik gorakoak izan behar dira. Ant.: Arrigorri Itsas Arrantza Elkarte.



Izen-emateak:



2023ko andramaixetako argazkixak







ESKERRIK ASKO liburuxka hau kaleratzen lagundu diguzuen guztioi,
baita Hitza urte guztian kalean egotea posible egiten duzuen
harpidedun, babesle eta laguntzaile guztioi!

GUZTIOK ONDARRU

(Augustin Zubikarai/ Victor Ureña, 1960)

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Haixe berdietan
edo ipar baltzetan
begira Antiguari
gure izarrari.
Herrira etortzean
kale ta kantoietan
zorutzen pozez,
umore onez,
kresal usainez.

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Ur ertzean sortu
ta ur ertzean hil,
eta bitartean
kantuz dantzan,
orruz txanpan,
Ondarru maitale,
Ondarru kutun,
hala beti ekin daigun.

Itsasoan
nahi lihorrian
gure ametsak
beti Ondarrun,
berau lakorik ez dugu
guk inun ezin inun.

Itsasoan
nahi lihorrian
ezin ahaztu
gure Ondarru.
Kantauriko
pitxi harru
gure ONDARRU!